Latina

Latina laugarren kurtsoan aukerako irakasgaia da eta beraren bidez Erromako hizkuntza eta kulturarako hurbilketa berariazkoa egiten da. Kultur eta hizkuntza edukietatik abiatuta ikasten da. Eduki horiek elkarren osagarriak dira eta ondare klasikoa deritzonaren barruan oso ekarpen garrantzitsuak egin dituzte biek. Batetik ekarpen horrek eta bestetik egungo gizartean bizirik irauteak aurkezpenaren gidari izan behar dute eta irakasgaia ikastea justifikatuko dute.

Irakasgaiak bi helburu nagusi ditu: hizkuntzaren oinarrizko ikasketari ekitea, latina hizkuntza erromantze askoren jatorrian baitago; eta, bestetik, Erromako gizartearen eta kulturaren alderdirik azpimarragarrienak ezagutzea gaur egungo mundukoekin erlazionatzeko. Lehenengo helburuaren bidez, hizkuntza bera hobeki ezagutu eta erabiliko da ikasteko eta komunikatzeko tresna nagusi gisa. Bigarren helburuaren bidez egungo gizartearen interpretazio ponderatuagoa egin daiteke. Biek eraginkortasunez laguntzen dute oinarrizko gaitasunak garatzen eta etapa honetako helburuak lortzen.

Irakasgaiaren zati handi bat hizkuntza edukiek betetzen dute, latina mundu klasikoak mendebaldeko zibilizazioari egindako ekarpenik garrantzitsuena delakoan; eboluzioagatik nahiz eragin lexikoagatik, latina erabiltzen ditugun hizkuntzetan ageri da, baita ikasleek ikasten dituzten hizkuntzetan ere.

Latinaren sistema aztertzeak, hizkuntza flexiboaren eredutzat hartuta, bide ematen du, alderaketaren bidez, gogoeta sakona egiteko ikasleek erabiltzen dituzten hizkuntzen osagai formalei eta mekanismo sintaktikoei buruz. Nahiz eta latinaren oinarrizko ezagutza baino ez izan, hizkuntza erromantzeak uler daitezke eboluzio baten emaitza zehatz gisa, eta suma daiteke zenbateraino dauden haien egitura eta lexikoa jatorrizko hizkuntzarekin zorretan. Bestalde, itzulpengintza ikerketa-esperientzia da: pentsamenduaren logika erabiltzen du, memoria sendotzen du eta ikasteko diziplina-ohiturak bultzatzen ditu. Azken finean, haren bidez hobeki arrazoitzen da eta nola ikasi ikasten da.

Latinaren historia eta eboluzioa eta hitzen osaketa aztertuta, ikasleek ezagutza nahikoak izanen dituzte hizkuntzen eboluzioa ulertzeko, aldaketa fonetikoaren eta semantikoaren prozesuak zehazteko eta lexikoa osatzean diharduten prozedurak adierazteko.

Halaber, irakasgaiaren bidez Erromako gizartearen esparru geografikoa eta historikoa eta alderdi azpimarragarrienak jorratzen dira. Gizarte horretatik bizimoduak, erakundeak edo lan literario, tekniko eta artistikoak iritsi zaizkigu eta horiek guztiak Europaren egituraren eta aurrerapenaren oinarri izan dira. Ezagutza hori beharrezko erreferentzia da gizarte-antolaketaren aurrekari historikoak edo pertsonen eskubideen nondik norakoak arakatzeko. Gure orainaldia moldatu duen eta gure kanon estetiko asko eta askotan eragina izan duen kulturak, gainera, gure kultur ondarea mundu klasikoaren sustraiekin lotzen duten balio unibertsalak transmititu ditu. Ildo horretan, literatura testuak irakurriz gero, kultura greko-latindarreko gaiak eta topikoak gaurdaino iritsi direla eta oraindik ere gure idazkietan eragina dutela ikus daiteke.

Ikuspuntu horren arabera, irakasgaiaren edukiak lau multzotan banatzen dira. Lehenengo hirurek (Latinaren sistema, Latinaren historia eta bilakaera eta Hitzen osaketa) hizkuntza edukiak azpimarratzen dituzte eta elkarren artean erlazionatzen dira. Horrela, latina ikasteaz gain, norberaren hizkuntza ere zehatzago erabili ahal izanen da, baita terminologia landua, zientifikoa eta teknikoa behar bezala ulertu ere. Laugarren multzoan (Mundu klasikoa transmititzeko beste bide batzuk) Erromako gizartearen alderdi nagusiak jorratzen dira, ondoko hauek azpimarratuz: egungo munduari mundu klasikoak utzitako arrastoak, horien aurrekari klasikoen azterketa konparatiboa, eta jarraipenaren, bilakaeraren eta aldaketaren balorazio kritikoa.

Lau multzo horietako edukien banaketan, edukiak berariaz tratatzeaz gain, testuinguru orokorrean kokatu behar dira eta testuinguru horretan elementuek azalpen erlazionatu eta koherentea izan behar dute.

Edukiak behar bezala tratatzean eta helburuei lehentasun egokia ematean datza irakasgaiaren baliagarritasun bikoitza. Horrekin guztiarekin latinari eta Erromako kulturari buruzko ezagutza oinarrizkoak lortu behar dira; betiere ezagutza horiek ikasketaren eta garapen pertsonal eta sozialaren testuinguru desberdinetan funtzionalak eta erabilgarriak izan behar dute eta, aldi berean, humanitateekin eta gizarte zientziekin zerikusia duten ikasketetan jarraitzeko oinarri egokiak ezarri behar dituzte. Hala, Latina irakasgaia, bere edukien bidez eta bere helburuen lorpenaren bidez, ikasle guztientzat baliagarria izanen da etapa honetan proposatzen diren gaitasun eta ahalmenetan behar adinako maila lortzeko.

Oinarrizko gaitasunak lortzeko irakasgaiak egiten duen ekarpena

Curriculumaren elementu adierazgarrienetatik abiatuta, Latinak zuzeneko ekarpena egiten du Hizkuntzaren bidez komunikatzeko gaitasuna lortzeko.

Irakasgai honetako eduki guztietatik abiatuta askotariko testuen ulermenezko irakurketa eta ahozko zein idatzizko adierazpena lantzen dira, kalitatezko edozein ikasketa egiteko ezinbesteko baliabide gisa. Latinaren egitura ezagutuz gero, Europako hizkuntza erromantzeen gramatika funtzionala sakonago ulertzen da. Erromantzeak ez badira ere, beste hizkuntza batzuekin ere berdin gertatzen da, latina bezala flexiboak badira edo latinak ekarpen lexiko garrantzitsua egin badie. Ematen den informazioa jaso eta prozesatzeko, baita behar bezala erabiltzeko ere, beha-

rrezkoa da elementu morfosintaktikoak eta hiztegiarenak interpretatzea eta, halaber, itzulpengintzan eta erretrobertsioan aritzea.

Hitzak eratzeko prozedurak eta eboluzio fonetikoaren fenomenoak ezagutzeak eraginkortasunez laguntzen du oinarrizko hiztegia garatzen, eta hizkuntza komunikazio-tresnatzat erabiltzera bultzatzen du. Etimologia greko-latindarrak ezagututa, hiztegi landua ulertzen eta erabiltzen ahal da, baita termino zientifikoen nahiz teknikoen hiztegi berezia ere.

Latinaren historiaren eta eboluzioaren ezagutzatik abiatuta, denboran zeharko eta eremu geografiko nahiz sozialetan zeharko hizkuntzen aldakortasunaz jabetzen gara eta hizkuntzen arteko harremanek kulturen arteko harremanak eragiten dituztela ikusten dugu. Ezagutza horrek, aldi berean, hizkuntza guztiak errespetatu eta horiekiko interesa izatea sustatzen du, eta bertan sartzen dira hizkuntza zaharrak nahiz gutxiengoen hizkuntzak ere. Azkenik, kultur eta hizkuntz desberdintasunetan oinarritutako estereotipoak errefusatzen dira.

Irakasgaiaren bidez *adierazpen kultural eta artistikorako gaitasuna* lortzen da, gure herrialdean eta Europan Erromak utzi duen ondare arkeologiko eta artistiko garrantzitsua ezagutzearen bidez. Horrela, artea giza sormenaren emaitza eta historiaren lekukoa den neurrian, irakasgai honek arteaz gozatzen eta hura estimatzen laguntzen du; gainera, ondare hori zaintzeko interesa sustatzen du. Halaber erreferentziak ematen ditu balorazio kritikoa egiteko kultura eta mitologia greko-latindarretan oinarrituta gerora egin diren artelanei buruz, edota komunikabideek hedatzen dituzten mezuei buruz, hauen oinarri ikonikoa maiz errepertorio klasikoan baitago. Gainera, mundu klasikoa eta beraren iraupena ezagututa, ondorengo literatura hobeki interpreta daiteke, bertan gaiek, arketipoek, mitoek eta topikoek bizirik iraun baitute. Aldi berean, irakurtzeko interesa, testuen izaera estetikoaren balorazioa eta literatura zaletasuna garatzen dira.

Gaitasun sozialari eta herritartasunari ere ekarpena egiten dio: erromatarren erakundeak eta bizimodua ezagutzen dira eta erreferentzia historikotzat hartzen dira gizarte antolaketa, herritarrek bizitza publikoan duten partaidetza eta gizabanakoen nahiz taldeen eskubide eta betebeharren mugaketa ulertzeko, iraganean latinaren bidez baturik egon zen Europa alderdi-aniztun baten esparruan eta ingurunean. Bestalde, gizarte hartan zeuden desberdintasunak ezagututa, gizarte talde edo talde etniko jakinetako kide izateagatik edo sexuagatik jasaten den diskriminazioaren aurreko erantzun kritikoa sortzen da. Hartara ikasleek balorazio positiboa eginen dute herritarren parte-hartzeaz, negoziazioaz eta guztientzako berdinak diren arauen aplikazioaz, gatazkak konpontzeko tresna baliagarri gisa.

Irakasgai honek lagundu egiten du *informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala* garatzen, irakasgaiaren zati batean informazioa bilatu, hautatu eta tratatu behar baita. Horrez gain, gaitasun hau lortzeko oinarrizko tresnak dira honakoak: informazioa bildu, hautatu eta aztertzea, laburpenak egiteko teknikak aplikatzea, gako hitzak identifikatzea eta ideia nagusien eta bigarren mailako ideien artean bereiztea. Izan ere, gaitasun honek lotura estuak ditu etengabeko prestakuntza pertsonalerako trebetasunekin. Bestalde, irakasgai honek gaitasun digitala garatzen lagunduko du informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen diren heinean, informazioa orokortzen duen tresna gisa eta ikasitakoak besteei adierazteko baliabide gisa.

Latinaren bidez *ikasten ikasteko gaitasuna* errazago lortzen da. Izan ere, ikasteko prestasuna eta ikaskuntza antolatzeko trebetasuna sustatzen dira, autonomiarako, diziplinarako eta gogoetarako trebetasunak sustatzen, memorizazioaren bidez datuak berreskuratzeko gaitasuna lantzen da eta hezkuntza prozesua zorroztasun logikoaren testuinguruan kokatzen da.

Irakasgai honek lagundu egiten du *norberaren autonomia eta ekimena* lortzen, erabiltzen diren prozeduretan planifikatu, aukera desberdinak ebaluatu eta erabakiak hartu behar direlako. Elkarlanean arituz eta emaitzak elkarri azalduz, ikaskideen ekarpenak baloratzen dira, norberaren akatsak aitortzen dira, nola zuzendu behar diren ulertzen da eta emaitza ezegokien aurrean amore ez ematen ikasten da. Laburbilduz, irakasgai honek hobekuntzarako;; aukerak eskaintzen ditu eta hobetu nahia sustatzen du.

Helburuak

Etapa honetan Latinaren irakaskuntzaren bidez hurrengo gaitasunak garatu nahi dira:

1. Latinaren elementu morfologikoak, sintaktikoak eta lexikoak identifikatu eta erlazionatzea testu errazak aztertu eta itzuli ahal izateko.
2. Ikasteko antolaketaren, lanaren eta diziplinaren ohiturak garatzea, latinezko testuak aztertu eta itzultzeko beharrezkoa den egituratze mentalaren mekanismoetatik abiatuta.
3. Ulermenezko irakurketa eta ahozko nahiz idatzizko adierazpena hobetzea eta, horretarako, latinaren hiztegia eta gramatika-egiturak ezagutzea.
4. Hizkuntza erromantzeen jatorria eta bilakaera ezagutzea ezaugarri komunak eta hizkuntza-aniztasuna baloratzeko, Europako herrien kultur aberastasunaren lekukoak baitira.
5. Latinetik hizkuntza erromantzeetara izandako eboluzio fonetikoaren oinarrizko erregelak erabiltzea eta latinaren ondare-hitzak, kultismoak eta esamoldeak identifikatzea hizkuntza-testuinguru desberdinetan.
6. Norberaren hizkuntzan dagoen jatorri greko-latindarreko lexikoaren esanahia ulertzea eta hiztegi landua, zientifikoa eta teknikoa ulertzea bere osagai etimologikoetatik abiatuta.
7. Ikasleek ezagutzen dituzten hizkuntza erromantzeen elementu formalei eta hizkuntza-egiturei buruz hausnarketa egitea latinarekin alderatuz, hizkuntza flexiboaren eredua den aldetik.
8. Eskolako liburutegia nahiz informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea erromatar kulturaren eta zibilizazioaren inguruko gai azpimarragarriei buruzko lanak ezagutu, arrazoitu eta orientatzeko eta ezagutzak ikasi eta partekatzeko tresna gisa.

Edukiak

1. multzoa. *Guztientzako edukiak*

– Arlo honetako ikasketarako beharrezkoak diren hizkuntza trebetasunak lortzea: idatzizko eta ahozko testuak ulertzea, hiztegi berezia ezagutzea, ahozko eta idatzizko adierazpenak behar bezala erabiltzea etab.

– Idatzizko iturrietako informazioa ulertzea eskemen, grafikoen, mapa kontzeptualen, laburpenen eta abarren bidez.

2. multzoa. *Latinaren sistema*

– Latinaren alfabetoa eta ahoskera. Latinezko testuak irakurtzea eta termino gardenak ezagutzea.
– Latina, hizkuntza flexibo gisa. Kasuak eta horien balio sintaktiko nagusiak. Latinaren eta ikasleek erabiltzen dituzten hizkuntza erromantzeen egituren arteko desberdintasun eta parekotasun nagusiak ezagutzea.
– Hitz motak. Izen, izenordain eta aditz flexioa. Latineko flexioaren kategoria gramatikalak ezagutzea eta egungo hizkuntzetako elementu flexiboekin alderatzea. Maiztasuneko lexiko latinoa.
– Oinarrizko perpaus-egiturak. Komunztadura eta hitzen ordena. Lotura koordinatzaile ugarienak. Analisi morfosintaktikoa, latinezko testu labur eta errazak itzultzea eta perpaus sinpleen erretrobertsioa egitea.
– Latina aintzat hartzea mundu klasikoari iraunarazi eta mundu hori transmititzeko bide nagusia eta hizkuntza erromantzeen sistema sakonki ulertzeko berebiziko tresna den aldetik.

3. multzoa. *Latinaren historia eta bilakaera*

– Latinaren jatorria eta bilakaera. Hizkuntza indoeuroparren sailkapena.
– Latin landua eta latin arrunta. Nola osatu ziren hizkuntza erromantzeak. Idatzizko eta ahozko hizkuntzen arteko bereizketa. Hizkuntza erromantzeen eboluzio prozesuak aztertzea.
– Eboluzio fonetikoa. Ondare-terminoak eta kultismoak. Aldaketa fonetiko ohikoenen azalpena. Latin-erro bereko hitzen arteko lotura semantikoa eta eboluzio fonetiko desberdina.
– Latinetik eratorriak ez diren hizkuntza modernoei latinak egindako ekarpen lexikoa. Erromantzeak ez diren hizkuntzetako testuak irakurtzea eta horietan latin jatorriko terminoak identifikatzea.
– Europako hizkuntza nagusien jatorri komuna baloratzea, hiztegi berria lortzeko interesa azaltzea, gainerako hizkuntzekiko errespetua agertzea eta horiek erabiltzen dituen jendearen kultur diferentziak onartzea.

4. multzoa. *Hitzen osaketa*

– Hizkuntza erromantzeen osagai greko-latindarrak. Norberaren hizkuntzan erabiltzen diren lexema, atzizki eta aurrizki greko-latindarrak identifikatzea. Hitzak definitzea beren etimoetatik abiatuta.
– Zientziaren eta teknikaren hiztegia. Terminologia berariazkoetan etimo grekoak eta latindarrak hautematea.

– Latinismoak eta latinezko lokuzioak. Ahozko eta idatzizko hizkuntzari erantsitako latinezko esamoldeak hautematea.
– Hitzen esanahi etimologikoa ezagutzeko jakin-mina eta hiztegia behar bezala erabiltzeko interesa izatea.

5. multzoa. *Mundu klasikoa transmititzeko beste bide batzuk*

– Erromako gizartearen esparru geografikoa eta historikoa. Lehen eta bigarren mailako iturriak erabiltzea iragana ezagutzeko.
– Erakundeak eta eguneroko bizitza. Haien erreferenteak identifikatzea gure gizarte eta kultur ikuspegitik. Gizarte eta familia egiturak alderatzea eta azterketa kritikoa egitea.
– Erromanizazioaren arrasto materialak. Erromatar ondare arkeologikoa eta artistikoa zuzenean eta zeharka behatzea eta, horretarako, hainbat baliabide erabiltzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskaintzen dituztenak barne.
– Mitologia literaturan, arte plastikoetan eta ikus-arteetan.
– Mota guztietako literatura eta arte agerpenetan mitologia klasikoaren elementuak hautematea eta horien esanahia interpretatzea.
– Mendebaldeko historian Erromak bete duen zeregina baloratzea, hark utzitako ondare arkeologikoa, artistikoa eta literarioa errespetatzea eta latindar literaturako testuak irakurtzeko interesa izatea.

Ebaluazio irizpideak

1. **Egile klasikoen eta modernoen testu itzulien edukia laburtzea eta horietan alderdi historikoak edo kulturalak identifikatzea.**

   Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ikasleak gai diren testu baten edukia ulertzeko, erromatar zibilizazioko gertaerak, pertsonaiak eta alderdiak identifikatzeko eta testuak eskainitako datuak egungo erreferentziekin lotzeko. Horretarako, testuen eskemak eta laburpenak eginen dituzte, batez ere testu historikoenak. Gainera, lortutako ezagutzetatik abiatuta, iruzkinak sartuko dituzte eta erromatar gizarteko bizimoduak, ohiturak eta jarrerak baloratuko dituzte, gure gizarteekin alderatuta.

2. **Garai guztietako literatur eta arte agerpen desberdinetan inspirazio iturri gisa mitologia klasikoa bereiztea eta ondare arkeologikoan erromanizazioak utzitako arrastoak hautematea.**

   Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ea ikasleek identifikatzen dituzten mitologia klasikoaren eta erromatarren ondare arkeologikoaren elementu nagusiak adierazpeneko testuinguru desberdinetan, literatura testuetan eta edozein motatako ikonografian, ea horien esanahi berariazkoa ulertzen duten eta horien balioa aintzat hartzen duten inspirazio iturri gisa. Horretarako, bilaketak eginen dituzte askotariko iturrietara joz, informazioaren eta komunika-

zioaren teknologiak barne, edo beren ezagutzak azalduko dituzte mitologia edo arkeologia gaien inguruko testuak, mezuak edo irudiak iruzkinduz.

3. **Eboluzio fonetikoaren oinarrizko erregelak aplikatzea ohiko hiztegiko termino erromantzeak sortu dituzten etimo latindarrei, eta ondare-terminoaren eta kultismoaren arteko lotura semantikoa zehaztea.**

   Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da ea zenbateko gaitasuna duten eboluzio fonetikoaren mekanismoak erabiltzeko eta jatorri bereko hitzen esanahien arteko desberdintasunak aztertzeko. Horretarako, eboluzio erregelak aplikatuko dituzte, edo erromatarrengandik jasotako terminoarekin alderatuz ondorioztatuko dituzte erregela horiek. Gainera, ikasleek konposizioak idatzi beharko dituzte, ereduei jarraituz, eta aurrez ikasitako ondare-terminoak eta kultismoak sartuko dituzte testu horietan.

4. **Egunero erabiltzen diren hitzetan eta zientzien nahiz teknikaren hiztegi berezian osagai greko-latindarrak identifikatzea, eta horien esanahi etimologikoa azaltzea.**

   Irizpide honen bidez egiaztatu behar da ikasleak gai diren hizkuntza-testuinguru desberdinetan formante grekoak eta latindarrak hautemateko eta eguneroko terminoen, termino zientifikoen nahiz termino teknikoen definizio etimologikoak osatzeko. Horretarako, jarduera egokiak proposatuko dira, hizkiek dakartzaten aldaketa semantikoak bereizteko. Ikasitako gaietako hiztegi berariazkoa duten testuak erabiliko dira.

5. **Ikasleek dakizkiten hizkuntzei erantsitako latinismoak eta latinezko lokuzio arruntak hautematea eta horien esanahia azaltzea ahozko nahiz idatzizko adierazpenetan.**

   Irizpide honen bidez egiaztatu behar da ikasleek identifikatu eta ulertzen ote dituzten hizkuntza modernoetan sartutako esamolde latindarrak, eta horiek koherentziaz erabiltzeko gauza diren. Horretarako, askotariko testuak erabiliko dituzte: literaturakoak, egunkarietakoak edo publizitate mezuak, ikasten ari diren hizkuntzetan idatziak. Testu horietan latinezko esamoldeak bilatuko dituzte eta konposizio laburrak idatziko dituzte horiek behar bezala erabiliz.

6. **Latinaren oinarrizko egitura sintaktikoak eta elementu morfologikoak hautematea eta norberaren hizkuntzakoekin alderatzea.**

   Irizpide honen bidez egiaztatu behar da ikasleek ulertzen duten latinaren oinarrizko funtzionamendua eta gai diren beren hizkuntzako elementu eta egiturekiko analogiak eta desberdintasunak zehazteko. Latinaren paradigmak finkatzeko jarduerez gain, ikasleek beren ulermena erakutsi ahalko dute latinezko testu bat eta bere itzulpena alderatuz eta bi hizkuntzetako hitz aldaezinak, morfema flexiboak eta egitura sintaktikoak identifikatuz.

7. **Testu labur eta errazak itzultzea eta erretrobertsioaren bidez perpaus sinpleak sortzea latinaren berezko egiturak erabiliz.**

   Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ikasleek ongi ikasi dituzten latinaren oinarrizko egitura morfologiko eta sintaktikoak eta gai diren horiei antzemateko testu errazen itzulpen zuze-

nak edo alderantzizko itzulpenak egiterakoan. Horretarako analisi morfosintaktikoak, itzulpenak eta erretrobertsioak eginen dira eta ariketa horietan agerian jarri beharko da analisiaren eta egindako bertsioaren arteko lotura.

8. **Irakasleak gidatuta, Erromako ekoizpen artistiko eta teknikoari, historiari, erakundeei edo eguneroko bizitzari buruzko lan erraza egitea.**

   Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ikasleak gai diren askotariko iturrietatik informazioa lortzeko, informazio hori antolatzeko, bildutako datuak kronologian kokatzeko, erreferente klasikoak interpretatzeko egungo munduan dituzten kidekoekin alderaturik, eta emaitza modu ordenatuan eta koherentziaz azaltzeko, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz beren lana aurkezteko lehentasunezko tresna gisa.